



ODRIOZOLA LIZARRIBAR, Joxe Manuel

Estatu etnozidaren kontra edo jatorrizko hitzun-herriak nola, zergatik eta nork arrotzen dituen

Donostia: Elkar, 2011.

348 or. : ir. ; 21 cm.

ISBN: 978-84-9783-963-1

Estatu etnozidaren kontra izenburu probokatzailerak dakarren liburu honek, zalantza barik, hausnarketa eta eztabaidarako bidea zabaltzen du. Autoreak berak dioen bezala, hizkuntza aniztasunaz eta galeraz, “erabateko ikuspegi sistematikoa baino areago, irizpide kritiko batzuen galbahetik igarotako gogoeta-lana” aurkituko du irakurleak. Saio honek, beraz, hainbat aditu eta aniztasun zaleen iritzi, hizkuntza gutxitu askoren inguruan egindako ikerketetako datu eta hizkuntza-politikaren berri ematen du, beti ere, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna dela-eta estatuek egiten dituzten politikak ikuspegi kritikoaarekin aztertuta.

Hamar atalek osatutako liburua da hau, lehena hitzaurrea delarik. Ondorenean, atalez ataleko edukia laborpenari eta, batez ere, autoreak jorratzen dituen auzi batzuk azpimarratzeari ekingo zaio.

Zer galtzen dugu hizkuntza bat galtzean? Izeneko atalean autorea hiztunek eta gizataldeek hizkuntzaren ordezkapena bizi dutenean jasotzen dituzten trauma eta kultura eta identitate mailan egon daitezkeen asimilazio eta alienazioaz mintzo zaigu. Fishman-i jarraituta (2005: 335-338), hizkuntz galerak sortzen dituen akulturazioa, hizkuntza baten eta hizkuntza horrek bideratzen duen kulturaren artean dagoen zilbor-hestea etetea, herritarren mundu sinbolikoaren desegitea, belaunaldien arteko harremanetan naturaltasunaren, identitate-sentimenduaren eta talde-balioaren murrizketa aipatzen ditu. Horiek denen erruz, jarraitzen du, “jatorrizko herritarrak ez du ahalmenik edukiko jatorrizko herriaren kide sentitzeko, arbasoen tradizioaren geroratzea moztu egingo duelako estatu etnozidaren asimilazio sistemak” (Odrizola, 2011: 24) eta bizitzeko duintasuna galduko du.

Gaur egun, berdintasunaren kultura eta politikaren izenean, diferente edo bestelakoa izatea ez dagoela begi onez ikusita gogoratzen du idazleak hurrengo atalean (*Diferente izatearen esanahia*). Bestalde, globalizazioa, eta batez ere ingelesa eta kultura anglosaxoia ba ei dira gai estatu txikiak nazio-identitate antolatuen oinarriak ere inarrosteko (ibid: 59). Horren adibide, suedieraren kasua aipatzen du. Autorea Suedia moduko “estatu txiki” (nik neuk indartuta) batean gertatzen omen den ingelesaren mehatxuaz ari bada ere, ohikoa izaten da mehatxu horrezaz kexu eta beldurrez egotea, baita gurean ere, nahiz eta, ingelesaren eta kultura anglosaxoiaren mehatxua baino askoz hurbilago ditugun euskararekin ukipen-egoera errealean dauden hizkuntzak eta kulturak, gure kasuan gaztelania eta frantsesa, historikoki ere hala gertatu da-eta, autoreak berak beranduago azpimarratzen duenez (ibid: 205).

Suediako kasuan ere, zehatz-mehatz han zer gertatzen den jakin ez arren, susmoa daukat ingelesarena ez dela askotan uste den bezain mehatxu arriskutsua. Izan ere, ingelesa hizkuntza global indartsua izanik ere, eta tresna-balio ikaragarria edukita ere (Suedian handiagoa hemen baino, hala ere), ez du ematen balio integratzaile handirik daukanik bertako biztanleen artean, are gutxiago euskaldunen artean, ezta arrazoi edo motibazio integratzaileek bultzatuta ikasteko eta erabiltzeko erabakia hartuko dutenik ez batzuek ez besteek. Nire ustez, euskarak, eta hizkuntza gutxituek oro har, duen erabateko arriskua gehiengoaren hizkuntzak balio integratzailea irabaztea da; tresna balio eskasa baina balio integratzaile handia izanda, hizkuntza gutxiak biziraungo du, diglosia-egoeran, baina hiztunek ez

dute erabat alboratuko. Bestalde, Suedia eta inguruko estatuetan, gazteek ingelesa oso ondo jakin eta erraztasunez erabiltzeko gai izan arren, Suediera ofiziala ez ezik erabat normalizatu den hizkuntza ingelesaren aurrean mehatxatuta egon daitekeela oso zalantzakoa ikusten dut nik.

Gutxiengoa: baina, zeren gutxiengo? atalean gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko harremanak eta bigarren lehengoan zorian izan dezaketen erantzukizuna aztertzen ditu Odriozolak. Nazionalismo etnozentrakoak bere burua zilegitzeko, bere buruaren izaera “neutrala” (berak indartua) aldarrikatzen duela azpimarratuz (idem: 79), gutxiengo izateak indartuago den gehiengo baten mendeko herritar morroia izatea dakar bere ustez, hau da, gizarte nazional hegemonikoak kontrolatzen dituen antolamendu politikoa, ekonomikoa eta kulturean herritar “normal” (berak indartua) gisara jarduteko gutxiengo izateak ez du baliabiderik eskaintzen. Eta, autorearen aburuz, tolerantzia eta errespetua ez dira nahikoa gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko harremanak kudeatzeko. Minorizazioa nola hezur-mamitzen da? Aniztasuna gordetzea oso garestia dela defendatuta edo horretan emandako dirua alferrik xahutzen dela aldarrikatuta, Crystalen hitzak gogora ekarrita.

Hurrengo atalean ere (*Hizkuntza aniztasuna edo inperatibo etikoa*) hausnarketarako galdera interesgarriak plazaratzen dira. Aniztasun biologikoaren aldarrikapenak erabateko oihartzuna duen garaian, zergatik ez da gauza bera gertatzen hizkuntza aniztasunarekin? Autorearen hitzetan, ez ote da susmagarria galtzearen dagoen hizkuntza bakar bat ere “Gizateriaren ondareztat” izendatu ez izana UNESCOK? Hausnarketarako gai interesgarria, dudarik gabe. Nik arrazoi bat ematekotan, zera aipatuko nuke: UNESCO osatzen duten estatu asko ez dagoela prest haien estatu-hizkuntzek beste hizkuntza gutxituekiko jazarpena egiten dutela onartzeko eta are gutxiago geldiarazteko eta, azken batez, hizkuntza bat “gizateriaren ondare” izendatuta, bere estatu barruan dauden antzeko egoerei errekonozimendu bera egiteko atek zabal-zabal irekitzea izango litzateke.

Beste auzi bitxi samar bat ere aipatzen du autoreak: hizkuntza murrizketaren alde dagoen inori ez zaiola bururatu ere egiten bertan behera utzi beharreko hizkuntza berea izan daitekeenik (Odriozola, 2011: 131). Gure artean ere, erdaldun elebakarren artean hizkuntza bakarraren abantaila “praktikoak” azpimarratzen dituztenek, hau da “Hobe da hizkuntza bakarra” aurreiritzia dutenek, aitortu ez arren, geratuko litzatekeen hizkuntza bakar hori eurena izatea espero dute, beste ikerketa batek jasotzen duenez (Amorrortu eta beste, 2009: 176, 253-254).

Bestalde, Sapir-Whorfen hipotesia aipatzen du autoreak, pentsamenduaren eta hizkuntzaren artean etena dagoela baiesten duen tesia, hau da, hizkuntzak ez omen duela gure pentsaera moldatzen defendatzen duen tesia, kolokan jarriz (139 eta hh), batez ere, ohikoagoa den euskararen hizkuntza-egiturak berak gure pentsamoldean izan dezaken eragina azpimarratu ordez, euskararen inguruan ditugun ideiek (euskara hiltzeari buruzko ardurak, kezak, esate baterako) euskaltzaleon pentsaeran izan dezaketen eragina indartuta. Batzuentzat zalantzagarri den erlatibismo linguistikoari buruz hausnarketa egiteko aitzakia ederra tarte hau!

Atal horren amaieran, hizkuntza ekologia abiapuntu, beste galdera interesgarri bat egiten du autoreak (155): “abertzale erdaldunak, oro har” nola bizi du herri euskaldunaren madarikazioa? “Kanpotik” bizi du (...) eta “kanpotik” bizi duenak gehiegi erlatibizatzen du minaren neurria”. Eta are gehiago, ikerketa bateko datuak jasoz (Baxok eta beste, 2006: 67), gaur egun euskaldun ezin izanaren minak eraginda lautik bat edo baino ez dagoela ekartzen du gogora.

*Hiztun menderatuaren soslai*a aztertzerakoan, ukapenezko sistema soziolinguistiko batean bizi diren hiztunen ezaugarri psikologiko eta ideologikoak ditu hizpide: sumisoak omen gara, ez omen dugu gure burua herritar normalizat hartzen, autoestimua eta identitate-harrotasuna erazten dituen hizkuntza-aurreiritziak zabal dabilta gure artean, ez euskaldunen artean bakarrik, kanpoko adibide ugari ipintzen ditu autoreak: euskal hiztunok, Sami herriak, Siberiako herriek eta amazigera-hiztunek ezaugarri bertsuak konpartitzen ei ditugu.

Hurrengo atalean, *Etnozidioaren eta genozidioaren arteko mugarrietan* izenekoan, lehendabizi “etnozidio” eta “asimilazioaren” arteko harremanak eta ezberdintasunak azaltzen

ditu lehen kontzeptua hobetsiz (207), gaur gertatzen ari den hizkuntza-heriotza erraldoia ezauzgarritzeko eta estatuak salatzeo, *bestearen* duintasuna ukatzen dutelako. *Hizkuntz heriotzaren zergatiak* aztertuko, gainera, besteen aurretik bi arrazoi nagusi indartzen ditu: lehen-dabizi, eta beste arrazoi batzuk egonik ere, estatua eta bere nolakotasuna, “estatu etnozidaren hizkuntza-politika sistematikoa dela etnozidaren arduraduna” argudiatuta (Odriozola, 2011: 227). Autorearen ustez, etnikoki neutrala eta inpartziala den estaturik ez dago eta, gainera, ezinezkoa da, estatua aldi berean ezin baita izan “bat” eta “askotarikoa”. Zimmermann-en galdera jasoz, auzi interesgarria plazaratzen du: Zergatik ote dira hain estatu gutxi beren hizkuntz eta kultur aniztasunaz harro eta pozik daudenak? Kultura-aniztasuna publikoki onartzekotan maila folklorikoan onesteko joera omen dago baina ez hizkuntza-politika auzietan. Hizkuntza-heriotzaren bigarren arrazoi nagusia, estatu hedakorraren kontrolpeko lurraldean gertatzen den barne-migrazioa da, kolonoen migrazioa, hain zuzen. Etorikin-kolonoa, autorearentzat, zinezko nazioaren oinordeko dena, nazio-estatuaren ezpaleko bihurtzen da estaturik gabeko herriaren aurrean.

Ondoren, *nolako egoerak, halako panoramak* deskribatzeko, munduko hizkuntzei buruzko oinarritzko datu batzuk aletzen ditu. Ikerketa bateko datuak aipatuta (Martí eta beste, 2005), munduan 22 estatutan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten direla bakoitzean, eta, beraz, guztira 22 estatu horietan munduko hizkuntzen %90 inguru hitz egiten dela azpimarratzen du. Izan ere, estatu batzuetan, hala nola Papua Ginea Berria, Indonesia, India edo Nigeria 300 hizkuntzatik gora hitz egiten da (Martí et al, 2005: 92). Egoera orokorra aurkeztuta, kontinenteka azaltzeari ekiten dio.

Azken atalean, *mendeko hizkuntzen aldeko politikak* izenekoan, lehen-dabizi, hizkuntza bat galtzen denean komunikazio-tresna hutsa ala beste zer edo zer (sinbolo edo identitate baliabidea, Itziar Idiazabalen hitzetan, edo balio kulturala eta antropologikoa, David Crystalen berbetan) galtzen den eztabaidatzen du, eta bigarren aukera onesten du, hizkuntzaren galera gure izaeraren galerarekin lotuz.

Hori argituta, hizkuntza diglosikoaren aldeko normalizatzeko-plangintzak bi eremu hartu behar dituela azpimarratzen du: esparru formalak eta ez-formalak, biak aldi berean eta indarbertsuarekin. Beste autore batzuk (Fishman, 1991, esate baterako) lehenesten dituzten inguru hurbileko esparruak ez ezik, Odriozolaren hitzetan “hizkuntzaren erabilera bitzita sozialaren esparru guztietan ahalbidetzen duen gune hegemoniko berrietan dago indarordekatzailea, ez familiaren eta etxe-inguruko betiko eremuetan” (313). Eztabaida piztu dezaken ideia interesgarria da hau, iritziak iritzi.

Liburua amaitu aurretik, Odriozolak plazaratzen dituen beste galdera probokatzailea baina hizkuntza-politikan hausnarketarako interesgarriak diren batzuk azpimarratu nahi nituzke: Noraino hel daitezke hizkuntzen babes-politikak? “Eutanasia linguistikoa” aplikatzea zilegi da? Noiz hiltzen da benetan hizkuntza bat? Elebitasun soziala posiblea da? Burujabetza politikak errotik hobetzen du nazio-hizkuntzaren bizi-indarra?

Liburu-aipamen hau amaitzeko, saio mamitsu honek egiten duen ekarpen nagusia, hausnarketa sustatzeko eta eztabaida pizteko eta errazteko autoreak biltzen dituen hizkuntzen eta bere hitzunen arteko harremanei buruzko ideia kritiko bilduman dago. Bere tesia indartzeko autore (ikerlari zein iritzi-emaile) ezberdinen iritziaz baliatzen da eta bere diskurtsoa egiteko iturri bibliografiko egokiak darabiltza, behe-oharretan zehatz-mehatz jasota.

Erreseina honetan liburuan ageri diren auzi batzuk baino ez dira aipatu; irakurleak askoz gehiago aurkituko ditu saioan. XXI mendean gertatzen ari den hizkuntza-galera itzelaren ezaugarri eta arrazoiak sakondu nahi duen ororentzat irakurri beharreko liburu baliotsua da, baita hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren eta estatu-politiken arteko loturak ikuspegi kritikoarekin jorratu nahi dituztenentzat ere.

Estibaliz Amorrortu